



KUTXA Enplegatuen Elkarte	Xendazaletasun atala
110. zka. 5 euskal hiribururen 21. Zeharkaldi Handia	Soraluze-Azkoitia/2015/2/21-22

Adiskide xendazaleok:

Egutegi berriko eta azken zati honetako lehenengo etapa: Donostiara iritsiko gara, horrela ibilbide handi honi bukaera emanez. Irteera Soraluzen izango da, 1343an Gaztelako Alfonso XI.a erregeak sorturiko hiribilduan.

Gure lehen helburua Karakate (749m) gailurrera iristea izango da. Mendizaleek honela deituriko mendi honen izena okerra da, eta hori Elgoibar aldean aspaldi izan zen izen bereko baserritik dator. Benetako izena “Kortazar” du, edo baita “Kortazarreko Haitza” ere. Ezozia auzoko aldapetatik igoko gara, pixkanaka gorantz joan eta laster eguneko lehen gailurra egingo dugu: Kortazar.

Gero geure aurrean gailurrez gailur ibilaldi atsegin eta polita izango dugu, eta eguraldiak pixka bat laguntzen badu, benetan gozagarria izango da guztiontzat. Gaztanbide (732m) mendi-lepora jaitsi eta bigarren kotaren bila abiatuko gara, Akelarre (763m). Beste mendi-lepo txiki bat eta gora berriro, oraingoan “Pagomuneta” (769m) gomendagarriaraino. Berriro behera eta gero gora Iruya txikiraino (772m): bide-gurutzeagatik eta handik gertu dagoen trikuharriagatik ezagutuko dugu. Gailurrez gailur jarraitu eta hurrengo kotara iritsiko gara, Atxolin (848m), bere trikuharri eta postontziarekin. Eta azken zatia mendikatean garaiera gorenara lortzeko, Hirukurutzeta (899m).

Gailur “hirukoitza” da, eta mendealdekoa da kotarik garaiera, Kurutzebakar (899m), nahiz eta ekialdekoetik, ia garaiera berekoa izanik (898m), ikuspegi hobeak egon, eta bertan dago erpin geodesikoa ere. Erdiko gailurrak “Kurutzezarra” du izena eta 892m-ko garaiera, eta menhir handi bat bere kotan. Handik aurrera zenbait jaitsialdi: Bergara, Elosua, Azkarate gaina, Azkoitia, etab. Guk hasieran Azkarateko mendate aldera joko dugu, baina aurrerago bide hori utzi eta Azkoitia aldera hartuko dugu, hantxe bukatzeko zeharkaldi polit hau.

Xendazaleok, animo, natura zain dugu-eta!!!

Ibilbidea: Soraluze-Azkoitia

Beharrezko denbora	4,20 ordu
Goranzko desnibel metatua	925 metro
Beharanzko desnibel metatua	745 metro
Zeharretara egin beharreko distantzia	16.350 metro
 Ingurunea	1  Orientazioa
2  Joan-etorria	1  Esfortza
	3

Irteera-lekua	Autobusen geltokia/Amara Plaza hotela
Aurkezteko ordua	08:10
Irteera-ordua	08:15
Bazkaria	Xxxxxxx jatetxea
Prezioa	29 euro

Izena emateko azken eguna: 2015-02-19ko 12:00etan

Oharra: a/Ez badago gutxieneko parte-hartzailearik, irteera bertan behera geratuko da.
b/Eguraldiaren iragarpena larunbaterako txarra baldin bada, igandean egingo da ibilaldia.

Izen-emateak posta-helbide hauetan egin behar dira:
alahuerta@kutxabank.es/jlurretabizkaia@kutxabank.es edo telefono hauetan: 943-00.14.69 (Alberto Lahuerta-Baterakuntza eta Kostuak-969)/943-00.12.36 (Lorenzo Urretabizkaia-Gipuzkoa Sarea-5700).

DAD/Senderismo/Kutxa/Alberto Lahuerta-Lorenzo Urretabizkaia

